

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MATERIALEN ETA MAKINEN PRESTAKETA, DOKUMENTU TEKNIKOEN ARABERA	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF0444		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Ekoizpen mekanikoa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Muntaketa-eragiketak	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Multzo eta egitura finko edo desmuntagarrien muntaketa	Iraupena	90
	Produktu mekanikoak egiaztatze eta kontrolatzeko eragiketak		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0088_1ko LB1 lanbide-burutzapenarekin: OINARRIZKO MUNTAKETA-ERAGIKETAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Materialak, makinak eta elementuak prestatzea, muntaketa-eragiketekin lotutako informazioak, argibideak eta dokumentu teknikoak interpretatuz.

EI1.1 Informazio grafikoa —planoak, marrazkiak eta krokisak— identifikatzea, muntaketa-elementuen bistak, ebakidurak eta sekzioak identifikatuz.

EI1.2 Materialen eta tekniken beharrak identifikatzea, egin beharreko muntaketaren arabera.

EI1.3 Makinak eta erremintak prestatzea, zorrotzuz eta doitzuz, laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak kontuan izanda.

EI1.4 Lanpostua antolatzea, behar diren garbiketa- eta mantentze-lanak eginez, laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak kontuan izanda.

Edukiak

1. Irudikapen grafikoa eta dokumentu teknikoak

- Prozesuaren dokumentu teknikoak.
- Marrazketa teknikoak:
 - Ierro normalizatuak.
 - Bistak.
 - Ebakidurak.
 - Sekzioak.
 - Krokisak eta kotatzea.
- Planoak interpretatzea.
 - Prozesuaren irudikapen grafikoa eta multzoak.
- Muntaketa-eragiketak egitean argibideak aplikatzea.
- Normalizazioa, perdoiak eta akaberen sinbologia.

2. Materialen ezaugarriak

- Material-motak:
 - Metalikoak.
 - Polimerikoak eta konposatuak.
- Lehengaien propietate fisikoak:
 - Altzairua.
 - Aluminioa.
 - Kobrea.
 - Aleazioak, etab...
- Ezaugarri teknikoak eta aplikazioak.
- Izendapenak, erreferentziak eta nomenklatura.

3. Makinen eta erreminten prestatzea

- Prozesuan parte hartzen duten tresnak eta erremintak.
- Makinetako, tresnetako eta martxan jartzeko eta gelditzeko sistemetako oinarritzko segurtasun-elementuak.
- Lehen mailako mantentze-lanak:
 - Koipeztaketa.
 - Oinarritzko piezak koipeztatzea eta ordezteak.
- Norbera babesteko ekipoen eta babes kolektiboko ekipoen segurtasun- eta erabilera-arauak.
- Lan-lekua ordenatzea eta garbitzea.
- Ingurumena babesteko arauak aplikatzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak.